# BESTELAKO XEDAPENAK

## EUSKAL FINANTZA ERAKUNDEA

## 5412

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 10ekoa, Finantzen Euskal Institutuko zuzendariarena, lanpostu-zerrenda aldatzea argitaratzeko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak Onartzen dituen abenduaren 22ko 15/2007 Legeak, zazpigarren xedapen gehigarrian, Finantzen Euskal Institutua sortu eta arautu zuen.

Gero, abenduaren 21eko 19/2023 Legea onartu zen, Finantzen Euskal Institutua erregulatzen duena. Lege hori onartzean, indargabetuta geratu ziren bertan ezarritakoaren kontra doazen xedapen guztiak eta, bereziki, 15/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Lege berrienak 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Institutuko Administrazio Kontseiluaren ahalmena da, Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, institutuaren barne-antolaketa finkatzea eta aldatzea onestea, bere burua antolatzeko ahala erabiliz, estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Abenduaren 23ko 218/2008 Dekretuak, Euskal Finantza Erakundearen Estatutuak onartzekoak, 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseiluaren eskumena da erakundeko barne-antolaketa, plantilla eta, hala dagokionean, lanpostuen zerrenda onartzea; horretarako, Zuzendaritza Nagusiak proposamena egingo du eta funtzio publikoan eskudun den organoak txostena emango du. Dekretu hori indarrean egongo da Institutua arautzen duen indarreko legean ezarritakoaren kontra egiten ez badu.

Ebazpen honen bidez, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeak 45.3 artikuluan ezarritakoa bete nahi da, bertan ezartzen baita lanpostu-zerrendak eta haietan egindako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla.

Lanpostu-zerrenda hau 218/2008 Dekretuan eta 19/2023 Legean xedatutakoaren arabera izapidetu da, aplikatu beharreko gainerako arauekin bat etorriz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako eta haren organismo autonomoetarako oro har onartutako irizpideak errespetatuz.

Beraz, Administrazio Kontseiluak 2025eko uztailaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Finantzen Euskal Institutuko lanpostu-zerrendaren aldaketa (ebazpen honen eranskinean jasota dago) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek euskal herriko agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbao, 2025eko abenduaren 10a.

Finantzen Euskal Institutuko zuzendari nagusia,
AMAIA DEL VILLAR RODRIGO.

## ERANSKINA

## FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUKO LANPOSTU-ZERRENDA

| Lanpostua | Izena | Bet. forma | Titulua | Ezagutz. | Esper. | Hitzarm. | Kategor. | Dotazioa | Hizk.-esk. | Derrig.-data | Dedikazio-araub. | Destinoa | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AJ10100 | Aholkularitza juridikoko arduraduna | L.L. | 42101 | | 6 | 7 | 16 | 1 | 4 | - | % 100 | Bilbao | |
| AJ20100 | Aholkularitza juridikoko teknikaria | L.L. | 42101 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| EF10100 | Finantza-estrategiaren arloko arduraduna | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko B2 maila | 6 | 7 | 16 | 1 | 4 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| EF20100/1 | Finantza-estrategiako analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko B2 maila | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| EF20100/2 | Finantza-estrategiako analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko B2 maila | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| EF30100 | Kudeaketa informatikoko teknikaria | L.L. | 61301, 061201<br>61901, 054101<br>61304 | Ingeleseko B2 maila | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| AF10100 | Administrazio eta finantzen arloko arduraduna | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 6 | 7 | 16 | 1 | 4 | - | % 100 | Vitoria-Gasteiz / Bilbao | |

| Lanpostua | Izena | Bet. forma | Titulua | Ezagutz. | Esper. | Hitzarm. | Kategor. | Dotazioa | Hizk.-esk. | Derrig.-data | Dedikazio-araub. | Destinoa | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AF30100 | Kontabilitate eta finantzetako teknikaria | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| AF20100 | Kontabilitateko administraria | L.L. | * | | 2 | 7 | 9 | 1 | 2 | - | % 100 | Vitoria-Gasteiz / Bilbao | |
| IP10100 | Inbertsioen arloko arduraduna | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 6 | 7 | 16 | 1 | 4 | - | % 100 | Bilbao | |
| IP20100/1 | Kreditu-arriskuko eta abaletako sailataleko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| IP20100/2 | Kreditu-arriskuko eta abaletako sailataleko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| IP20100/3 | Kreditu-arriskuko eta abaletako sailataleko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| IP40100 | Jarraipeneko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |
| FP10100 | Funtsen eta partaidetzapekoen arduraduna | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko C1 maila | 8 | 7 | 16 | 1 | 4 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko C1 maila edo baliokidea |

| Lanpostua | Izena | Bet. forma | Titulua | Ezagutz. | Esper. | Hitzarm. | Kategor. | Dotazioa | Hizk.-esk. | Derrig.-data | Dedikazio-araub. | Destinoa | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IP30100/1 | Partaidetzapekoen sailataleko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko B2 maila | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| IP30100/2 | Partaidetzapekoen sailataleko teknikari analista | L.L. | 31101<br>41201<br>41202<br>41301 | Ingeleseko B2 maila | 2 | 7 | 13 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | Ingeleseko B2 maila edo baliokidea |
| SD10100 | Zuzendaritzako idazkaria | L.L. | ** | | 2 | 7 | 7 | 1 | 3 | - | % 100 | Bilbao | |

* Administrazioko eta finantzetako goi-mailako teknikaria edo ikasketa-eremu guztietako gradu, lizentzia, ingeniaritza eta arkitekturako tituluak.

** Hauetako bateko goi-mailako teknikaria: Idazkaritza, Zuzendaritzarako Laguntza edo Administrazio eta Finantzak, edo ikasketa-eremu guztietako gradu, lizentzia, ingeniaritza eta arkitekturako tituluak.